

Denda fisikoari dagokionez, ahalik eta tratu hoberena eskaintzen saiatuko gara. Arretaz arituko gara gure bezeroekin eta eskatutakoa asetzen saiatuko gara. Hau da, bezeroekiko arreta pertsonala eskainiko dugu. Batzuetan ez da posible izango, baina hala ere, arazoa modu komenigarri batean konpontzen saiatuko gara. Honekin bilatuko duguna bezeroen fideltasuna da. Gure merkatua meguatuagoa denez, bezeroak gure dendan behin eta berriro erosiko dutela ziurtatu behar dugu. Horregatik, gure bezeroen fideltasuna lortu behar dugu, bezero fidelak sarritak erosiko dutelako. Gainera, arropaz aparte katuentzat osagarriak ere salduko ditugunez, lepokoak eta zaintza pertsonaleko produktuak esate baterako; garrantzitsua ikusten dugu bezero fedel hauek gure produktuak hainbatetan erostea. Hau lortzeko promozioak eta lankidetzak bilatuko ditugu; adibidez, gure dendan erosketa bat egin ondoren beherapenak izateko aukera izango dute, guk sortutako bonoen bitartez.

Sare sozialei dagokienez, bezero eta jarraitzaileekin ahalik eta harreman gehien izaten saiatuko gara. Haiekin elkarreragiteko bideak bilatuko ditugu; adibidez, enpresa hobetzeko proposamenak edo honi buruz daukaten iritzia eskatuko dugu eta posiblea den heinean, hobekuntzak egingo ditugu. Noizean behin zozketak ere egingo ditugu, horrela fidelagoak izango dira gure enpresarekiko.